



1991-2021

galtzaundi
e u s k a r a t a l d e a

2021eko EGITASMOA







Nafarroa etorbidea 6
20400 Tolosa
Telf: 943 655 004


 www.galtzaundi.eus

 galtzaundi@galtzaundi.eus

 688 738 418

 @galtzaundi

 galtzaundi

 @galtzaundi.eus



AURKIBIDEA

4-5

SARRERA

6

ESKUALDETZEA ETA EUSKALTZALEEN ANTOLAKETA

7

LAN TALDE PROFESIONALA ETA BORONDATEZKOA:
KOHESIONATUA, INDARTUA ETA OREKATUA

8

KOORDINAZIO BATZORDEAK ETA SEKTORE MAHAIAK

9-12

PROIEKTU ZEHATZAK

13

TOLOSALDEKO EUSKARAREN MAHAIA

14

2022-2025 EKINTZA PLANA

14

FINANTZAKETA

15

GALTZAUNDIEUSKARA TALDEAREN ORGANIGRAMA

SARRERA

Galtzaundi Euskara Taldea, Tolosaldeko euskalgintza sozialaren ehuna eraiki, antolatu eta eraginkortasunez jarduteko Elkartea da, eta euskararen normalizazioa bultzatzea eta euskal kulturaren garapenean eragitea du helburu. Asmo horrekin aritu da lanean bere 30 urteko ibilbide luzean, euskalgintzako beste hainbat eragileekin. Ospakizun urtea dugu.

2016-2017an, Galtzaundi Euskara Taldeak antolatutako Euskaltzaleen Foroan egin zuen gogoeta estrategikoan, hiru eragin esparru edo lan-ildo bereizi ziren:

- Galtzaundi Euskara Taldearen jarduna eskualde osora zabaltzea, euskaltzaleak antolatzea, eta mugimendua gaztetzea eta feminizatzea.
- Gizarte aktibazioa eta sektore desberdinen inplikazioa lortu eta sinergiak sortzea.
- Gobernantza eta lidertza eredu berri bat sustatzea eta euskalgintza instituzionala eta sozialaren lankidetzak artikulatzea: elkarren aitortza oinarri duen zoru komuna eraikitzea, eskualde ikuspegiko hizkuntza politika eta ekintza plana adostea, eta osagarritasunean oinarritutako lankidetzak molde berriak abian jartzea. Guztiaren jomuga, Tolosaldean harreman hizkuntza nagusia euskara izatea, ezagutza bermatzea eta erabileran eragitea.

Ildo horiek lantzen aritu gara 2017tik hona, eta urrats esanguratsuak egin ditugu guztietan. Horren lekuko dira datozen puntuak:

- Eskualdean euskarak duen bilakaera. Bilakaeraz egiten dugun irakurketa eta eskuarteko proiektu esanguratsuenak aurkezteko egindako agerraldiak, herriz herri eta udalez udal.
- Galtzaundi euskara elkartearen organigrama berria, eskualdeko herri guztiek esku-hartzeko moduan egokitua.



Galtzaundi aldizkariko lehen azala.

- Eratu diren sektore mahaiak (asko dugu egiteko alor honetan oraindik) eta koordinazio guneak sortzea, eskualdeko euskara teknikariena, ikastetxeena edota euskaltegiena esate ba terako.
- Tolosaldeko Euskararen Mahaia definitzeko egindako lana. Mahai gainean utzi dugu proiektu zehatza eta baita eskualde ikuspegiko ekintza plan xehatua ere. Eskualdeko eragile instituzional eta politikoen akordioaren eta urrats berrien zain dago une honetan.

Tolosaldeko Euskararen Mahaia, eskualdeko euskalgintza instituzional zein sozialak parez pare jarduteko zoru komun gisara irudikatu dugu. Bi eragile arduratzen dira, multzo horien arteko antolakuntza koordinatzeaz eta berritzeaz. Ondoren, hortik, eraginkortasun handiena erdietsi behar du eskualde honek duen desafio handienari aurre egiteko: Tolosaldean euskara indarberritu eta bere erabilera normalizatu, beti ere, berdintasuna eta aniztasuna oinarri hartuta. Benetan, lur-eremu osoan, komunikazio eta kohesioan hizkuntza nagusia izan dadin. “Hemen ez bada, non?” da galdera.

Sarrera honetan ezin aipamenik gabe utzi 2020ko martxoaz geroztik bizi dugun osasun krisia, Covid-19ak eragindako mundu mailako izurritea. Asko zaildu dira herritarren bizi baldintzak eta ez dira gutxi gaitzaren erasoari eutsi ezinik, galera handiak izan dituztenak. Gogoan ditugu horiek guztiak. Arazo global honen biktima da euskara ere, eta gure ahalegina areagotzea eskatzen digu pertsonen arteko harremanak zaildu eta urundu diren garai honetan.

Hau guztiagatik, are premiazkoagoa izango da Galtzaundi Euskara Talde indartsu bat. Euskaltzaleen ehun zabala josiz, eskualdeko udalekin eta beste eragileekin elkarlan estuan arituko dena. Beharrezkoa izango da alor guztietako herritarren parte-hartzea, eta horretarako ilusioa sortzea ere bada gure egitekoa, denona, denok behar baikaitu euskarak, eta guk ere euskara behar baitugu garena izateko.



Galtzaundi aldizkariko azken azala.

ESKUALDETZEA ETA EUSKALTZALEEN ANTOLAKETA

Tolosaldeko herri guztietako euskaltzaleak erakartzea eta era eraginkorrean antolatzea garrantzi handiko ekimena da gizartearen aktibazioa lortzeko. Hau da, Galtzaundi Euskara Taldearen egiteko handiena: aktibazioan lan egiteko oinarri sozial hori zabaldu eta ehuntzea, harreman sareak eratzea eta gizartearen kontzientziazioan elikatu eta trebatzea. Lan jarraitua eta etengabea eskatzen du horrek, bai euskaltzaleen sinergiak egoki baliatzeko eta baita, mugimenduaren etorkizuna bermatuz, aldian-aldiko euskaltzaleen sartu-irtenak ahalbidetu eta egoki kudeatzeko ere. Galtzaundiren eskualdetze eta antolatze lanari ere jarraipena emango zaio. Horretarako xede nagusiak: kide sarea zabaltzea, sinergiak lantzea, egitura indartzen eta egonkortzen jarraitzea izango dira. Helburu zehatz hauek ere ezarri dira:

- Galtzaundiren oinarri soziala, eskualdeko 28 herrietara hedatu eta datu basea eguneratuta edukitzea da. Ahalegin berezia egingo da, belaunaldi berriak proiektura erakartzeko. 447 bazkiderekin eman zaio hasiera urteari, 239 emakume eta 208 gizon; 500eko langa gainditzea izango da helburua.
- Galtzaundiren erabakigune desberdinen funtzionamendu ona bermatu: Zuzendaritza berri, arlokako taldeak indartu, azpi-eskualde batzordeak osatu, herri batzordeak elikatu,... Ahalegin berezia egingo da emakumeen eta gazteen parte-hartzea erraztuko duten baldintzak sortzeko.
- Azpitalde desberdinen dinamika eta koordinazioa ziurtatuko da eta erabaki gune horien (azpi-talde, azpi-eskualde, herri batzorde) erabakiak errespetatuko dira, beti ere helburu adostuen baitan izanez gero.
- Zuzendaritza Batzordean azpieskualdeko ordezkariak bermatuko da.

Helburu hauen artean, garrantzi berezia emango zaie, Galtzaundiren proiektura herritarrek erakartzeko diskurtsoei eta baita gazteen eta emakumeen parte-hartze zuzena errazteko baldintzak sortzeari ere.



LAN-TALDE PROFESIONALA ETA BORONDATEZKOA: KOHESIONATUA, INDARTUA ETA OREKATUA

Erabaki gune desberdinen jardun baldintzak zainduko dira. Alde batetik, eraginkortasuna irabazteko ebaluaketa jarraituak egingo dira, eta bestetik, koordinazio ona bermatzeko eta borondatezko kideen ekarpena errazteko (lan erritmoa eta karga neurtuz) dinamika baikorrekina lan giro ona zaintzeko neurriak hartuko dira. Lan-talde profesionala berregituratu eta ardurak berrantolatuko dira eta kide boluntarioen esku-hartze orekatua, eraginkorra eta sostengarria ahalbidetzeko eginahalak egingo dira. Hau guztiaren artean, ildo hauek zainduko dira bereziki:


- Borondatezko kideen (erabakiguneetakoak eta sortzen diren berariazko lan-taldeetakoak) esku-hartze aktiboa errazteko baldintzak.
- Lan talde profesionala, proiektuaren izaera, neurria eta baliabideekin bat datorrena.
- Funtzionamendu dinamika, aldiro gainbegiratuko da, behar diren neurri zuzentzaileak hartuz.
- Lankideen (profesional zein borondatezkoen) prestakuntza.



KOORDINAZIO BATZORDEAK ETA SEKTORE MAHAIK

Garrantzi berezia ematen dio Galtzaundi Euskara Taldeak eskualdeko euskalgintzako eragileen arteko elkarguneak indartzeari, batetik saretzeari eta lankidetzaz sustatzeari eta bestetik, gainerako gizarte sektoreekiko sinergiak lantzeko guneak sustatzeari. Jarraipena emango zaio, beraz, azken urteotan abiatutako bideari eta esku-hartze aktiboa izango dugu ondoko bilgune hauetan:

- Tolosaldeko Euskara Teknikarien batzordea: Anoeta, Amasa-Villabona, Ibarra, Irura, Tolosa eta Zizurkilgo udaletako euskara teknikariak eta UEMA-ko Tolosaldeko teknikariarekin osatzen dugun bilgune honetan aktiboki parte hartuko dugu, proposamenak eginez eta ardurak hartuz.
- Herrietako euskara batzordeak: Tolosa, Ibarra eta Amasa-Villabonako udalek eratutako euskara batzordeetan parte hartze zuzena izango dugu, eta ematen zaizkigun egitekoak beteko ditugu; gainerako herrietan eratzten direnekin kontaktuan izango gara eta ez dagoen haietan batzordeak sortzea sustatuko dugu.
- Hezkuntzako Euskararen Mahaia: eskualdeko ikastetxeen gehiengoaren ordezkarien arteko bilguneak dinamizatuko ditugu. Gure proposamenak mahairatu, eta egiten zaizkigun eskaerei erantzuten ahaleginduko gara.
- Helduen euskalduntze-alfabetatze mahaia: eskualdean diharduten euskaltegien (AEK eta Tolosako Aitzol udal euskaltegia), euskara teknikarien eta UEMAREN ordezkariarekin batera osatzen dugun bilgunean parte hartuko dugu. Gure proposamenak mahairatuko ditugu eta adostutako eginkizunak beteko ditugu. Arreta gune nagusia erabilera izango da.
- Hirugarren sektorea: eskualdeko merkatarien elkarteekin (Tolosa&Co, Oria eta Ibarra) koordinatzeko elkargunea dinamizatuko dugu, sektorean gauzatzeko ekimenak adostu eta bideratzeko. Jomuga komunak adostea eta elkarlanean sakontzea da xedea.
- Aisia eta kirol mahaia: eskualdeko eragileekin bilgune hau osatu eta egonkortzeko oinarriak jarri nahi dira.



PROIEKTU ZEHATZAK

Gizarte Aktibazioa

Euskarak 365 Egun markoan, Tolosaldeko harreman sare ezberdinetan euskararen aldeko jarrera sustatzetik hara, ezagutzan sakondu eta erabilera areagotzeko eta indartzeko ekimenak bideratzea da ekintza lerro honen helburu nagusia. Proiektu zehatzak bultzatuko dira, gizarteko eremu desberdinetan eragin dezaketen agente guztien lankidetzara eta parte-hartze aktiboan lortzeko ahalegina eginez.

- **Ikasle Eusle:** Hezkuntzako Euskararen Mahaian (HEM) adostuta gauzatuko da proiektu hau. DBH mailako ikasleen (12-15 urte, biak barne) artean hizkuntza ohituren inguruko hausnarketa egitea eta euskararen erabileraren aldeko jarrera kontzienteak hartzeko bide ematea da proiektu honen helburua. Maila horiek lantzen dituzten eskualdeko 8 ikastetxeek (Aralar, Emiobea, Zubimusu, Anoeta, Uzturpe, Herrikide, Orixe eta Laskorain) hartuko dute parte: 100 gela eta 2.000 ikasle inguru.
- **Merkataritza proiektua:** hizkuntzaren erabilera eta ikusgarritasuna indartzeko gune estrategikoa da 3. sektoreak eskaintzen diguna. Tolosa, Amasa-Villabona eta Ibarako Udalekin eta merkataritza elkarteekin adostuta eta UEMArekin lankidetzan, txikizkako saltokiekin lan egingo da. Sektore horretako jendeari, euskararen normalkuntzaren bidean laguntzeko beharrezko erremintak eskainiko dira.
- **Mintzalaguna:** euskara ikasten ari direnak, lagun giroan, euskara praktikatzeko espazio atseginak dira. Tolosa eta Ibarakoak antolatu eta kudeatuko ditugu eta eskualdeko beste herrietakoekin (Alegia, Altzo, Amasa-Villabona, Anoeta, Alkiza, Ikaztegieta, Irura, Zizurkil) koordinatuko gara ekimen bateratuak antolatuzko.
- **Herriarren kontzientziak:** azken hamarkadetan, euskarak eta euskalgintzak lorpen izugarriak izan baditu ere, garai berriek desafio berriak jarri dizkigute aurrez aurre. Garikoitz Goikoetxea kideak egin duen Euskara Tolosaldean: kartografia bat ikerlana abiapuntu harturik, eskualdeko udaletako ordezkari politikoei, arlo guztietako udal teknikariei eta herriarrei zuzendutako saioak antolatuko dira herrietako eragileekin eta UEMA-rekin elkarlanean.
- **Euskaraldia:** bigarren edizioaren (2020) memoria jaso eta balorazio kuantitatiboa zein kualitatiboa egingo da (hurrengo edizioa indartsuagoa eta eraginkorragoa egiteko aukera emango digu horrek), eta hirugarren edizioaren diseinuan parte hartuko da gure ekarpenak eginez Topaguneko lan taldean.
- **Euskararen Nazioarteko Eguna:** 2017an eskualdeko euskalgintza batzeko eta kohesio-natzeko ekintza proposamena egin zenean onarpen handia izan zuen ekimenak. Horren harira antolatu dira Tolosaldean “Euskarak 365 Egun!!”, “Hitzolariak”, “Zirraraldia”... 2020an ez zen kale ekintzarik proposatu eta horren hutsunea somatu da. Aurreko urtetako dinamika berreskuratuko da, eskualde mailako ekintzak egiteko.

Jakintza eta diagnostikoak

Galtzaundi Euskara Taldeko erabakiguneetako kideen eta langileen formazioan sakontzea (teorikoa, taktikoa eta ebaluatze sistemak), herritarren ezagutza soziolinguistikoak aberasteko jardunak antolatzea, eta eskualdeko esku-hartzeak definitzeko beharrezkoak diren diagnostikoak egitea dira lan ildo honetako xede nagusiak.

- **Galtzaundi kideen trebakuntza:** erabakiguneetan ari direnentzat soziolinguistikari buruzko mintegiak antolatuko dira eta bazkideei tailerrak eskainiko zaizkie.
- **Euskararen Historia Soziala Tolosaldean ikerlana.** Ikerketak, eskualde mailako historian arakatu nahi du, euskararen inguruan izandako gertaera, bizipen eta egitasmoak bilduz. Horretarako, ezagunak eta ezezagunak diren dokumentuak testuinguruan kokatu eta horien arteko haria osatu nahi da. Hiru urtetan burutzeko lana da. Lehen fasea gauzatuko da aurten: Tolosako okupaziotik gaur egunera arte (1936-2005). Haritz Azurmendi da proiektuaren arduraduna eta GFA-a da babesle nagusia.
- **Herritarren aktibaziorako eta ahalduntzerako ikerketa lana.** Feminismoak azken urteetan erakutsi digu ahalduntzea ezinbestekoa dela gizarte-mugimenduentzat, eta erakusten ari da ahalduntzeko ez dela irakasle edo psikologoaren beharrik: sarritan, kontzientziatutako jendea elkartzea eta haien artean bizitzen ari direna partekatzea bera aski dela, urrats handiak emateko. Horregatik, ikerketa bat jarri nahi dugu martxan: 10-12 euskaltzaleko talde bat 6 astez Ahobizi izango da; bizipenaren eta lorpenen ondorioak aterako dira; bide-lerro berri bat irekiko da.
- **Kale-erabilera neurketak.** Lan hauek egingo dira: UEMArekin lankidetzan, Tolosaldeko 28 herrietan egingo da Kale Erabilera Neurketa. Erkide Autonomoko 5.000 biztanlez goiko herrietan eta UEMA-ko kide diren herri guztietan egitekoa da neurketa hau. Tolosaldean, herri guztietan egitea adostu dugu UEMArekin eta Galtzaundi arduratuko da Tolosa eta UEMako kide ez diren herri guztietako datu bilketa egiteaz.
- **Amasa-Villabona, Ibarra eta Tolosako hirugarren sektoreko erabilera behaketa:** hiru herri horietako saltokiak bisitatuko dira eskaintza eginez eta, aldi berean, bilakaera neurtzeko datuak bilduz eta hizkuntza paisaia behatuz.
- **Txikizkako saltokiek eskaintzak sare sozialetan.** Saltokiek beraien eskaintzak egiteko erabiltzen duten hizkuntzen azterketa egingo da Jakintza sailaren gidaritzapean. Ondorioak aterako dira, euskaren erabilera bultzatzeko argudiotegia osatuko da eta merkatariei helaraziko zaie. Ikerketa beka bat diseinatu nahi da.

Sustapena

Hutsuneak dauden haietan, euskararekiko harreman esparruak eraikitzea, eta sormena eragiteko edota euskarazko kulturaren kontsumoa bultzatzeko jarduerak antolatzea da lan lerro honen helburua, bakarrik edo beste eragileekin lankidetzan.

- **Sormenetik:** Tolosako azokaren markoan, euskal kulturgintzaz hausnartzeko eta kultur esparru ezberdinetako sortzaileak, herritarrak eta euskaltzaleak batzeko gunea da. Bi saio antolatuko dira.
- **GurEra:** Tolosaldeko nerabeentzat erakargarri suertatuko den eta protagonista bihurtuko dituen jarduera berri bat diseinatu da “Sormenetik” esperientziatik abiatuta. Helburu hauek ditu: Galtzaundi eta aisialdi taldeen ateko lankidetzak sustatu; Tolosaldeko nerabeen arteko harreman sareak sortu (aurrera begira Euskal Herrian ere planteatu daitezke bi helburu horiek); euskararen eta euskal kulturaren transmisioan sakondu; nerabeengan sormena sustatu: antolaketa, kudeaketa...; euskarazko kultur eskaintza balioan jarri eta nerabeengana gerturatu. Bi saio antolatuko dira aisialdi elkarteekin elkarlanean.
- **Irakurle Taldea:** euskarazko irakurzaletasuna bultzatzea eta irakurtzeko ohitura dutenei euskarazko literaturaz hitz egiteko espazioa eskaintzea du helburu. Hamar saio antolatuko dira, Tolosan. Horietako lauetan idazlea bertan izango da.
- **XIV. Ibarra Galtzakomik:** sorkuntza eta euskara uztartuz, gazteen artean euskararen erabilera sustatzea, gazteek grafismoa euskaraz lantzea eta komikigintza afizio edo ofizio dutenei euren lanak kaleratzeko eta ikusgarri egiteko plaza eskaintzea du xede. Ahalegin berezia egingo da ekimena gizarteratzen eta bere emaitzak ezagutarazten.
- **Tokiko hedabideen kontsumoa sustatuko da.** Tolosako Mintzalagun programako partaideei urtebeteko harpidetza oparituko zaie.
- **Eskualdeko sortzaile eta kultur ekitaldien katalogoa.** Eskualdeko kultur eskaintza zabaltzeko, herrien arteko trukeak errazteko, eta herrietan antolatu nahi diren aisialdirako eskaintza partekatzeak erak aztertuko dira.
- **Gau Beltza:** Tolosaldeko herrietan antolatutako taldeetan (guraso taldeak, gaztetxeak, ikastetxeak, aisialdi taldeak, kultur elkarteak,...) egitasmoa aurkeztu eta berau antolatzeko baliabideak eskainiko dira: Gau Beltza ospatzeko ekintzen zerrenda, mozerro eta kalabazak hustutze tailerrak, girotze ekintzak (hitzaldiak, kondairaren eszenifikazioa,...). Bizitzaren zikloa, naturarekin konexioa, usadio zaharren berreskuratzea eta elkarbizitzarako baloreak landuko dira.
- **Euskaltzaleen komunitatea trinkotzeko lankidetzak:** euskararen normalizazioa helburu duten ekimenak gauzatu dira, antolakuntzan parte zuzena izanez edo bitartekaritza zerbitzuak eskainiz: Tolosaldepedia eskualdean bultzatu; Errigora eta Ikaskoli produktuen banaketan lagundu, etab.
- **Galtzaundi Euskara Taldeak 30 urte euskarazko kultura bultzatzen:** marko honetan kokatzen da Et Incarnatus orkestrarekin Tolosako inauterietan antolatutako “Galtzaundi 30 urte” kontzertua. Urtean zehar beste ekitaldi batzuk antolatuko dira finantzaketa lortzen bada.

Komunikazioa

Komunikazioaren gizaratean bizi gara eta nahitaezkoa zaigu komunikazio plangintza egoki planifikatu eta garatzea. Barne eta kanpo komunikazio estrategiak ondo definitzea eta horiek gauzatzea:

- **Galtzaundi Euskara Taldeak 30 urte:** urtemuga aldarrikatzeko marka sortuko da eta urte osoan erabiliko da.
- **Galtzaundi aldizkaria sortu zela 30 urte:** aldizkariaren ibilbidea gogoratzeko erakusketa ibiltaria diseinatuko da Tolosaldeko Atariarekin elkarlanean.
- **Tokikoen tokia komunikazioaren munduan:** tokiko hedabideek informazioaren mundu globalean dituzten desafioen inguruko hausnarketa bultzatzeko une egokia da. Eskualdeko tokiko hedabideekin batera egin nahi litzateke.
- **Komunikabideekin informazioa elkar-trukatzea eta lankidetzak:** Tolosaldeko komunikabideekin (kasu batzuetan nazio mailakoekin ere bai) informazio trukatzeko eta euskararen gaia horietan txertatu dadin erraztea da helburua. Aiurri, 28 Kanala eta Tolosaldeko Ataria hedabideekin elkarlan ildoan sakontzen jarraituko dugu.
- **Eguneroko komunikazioa:** Galtzaundiren proiektuek eskatzen dituen komunikazio materialak sortu eta kudeatuko dira.
- **www.galtzaundi.eus eta sare sozialak:** webgunea etengabe eguneratuko da eta berrikuntza berriak txertatuko dira elkarrekin dituen beharretara egokitzeko. Aldi berean, gehien erabiliak diren sare sozialetan Galtzaundiren lanketak eta euskararen inguruko berriak eta hausnarketak plazaratuko dira.
- **Barne komunikazioa:** bereziki zainduko da Galtzaundi kideekiko harremana, baina baita Tolosaldeko euskaltzale eta erakundeekikoa ere, maiztasunez, elkarrekin egitasmoen eta erabakien berri emanez horretarako sortutako barne-orri digitalaren bitartez.
- **2020. urteko jarduna biltzen duen bideoa** eta **aldizkari digitala** argitaratuko dira eta baita **2021 egitasmoa** biltzen duen aldizkari digitala ere.

Zeharkakotasuna: berdintasuna eta aniztasuna

Gizarte alorreko beste esparruetan dihardutenekiko harreman esparruak sortu nahi dira. Euskarak inklusio eta harreman bidea izan behar badu, nahitaezkoa da elkarriketa hau elikatzea, sareak eraikiz hurbilketa lanak egitea, eta zubiak eraikiz, elkarlanerako espazioak sustatu eta indartzea. Zoru hau partekatu nahi dugu honako hauekin: Genero berdintasunaren esparruan dihardutenekin, kultura aniztasunaren esparruan ari direnekin, bereziki, kanpo-jatorriko pertsonekin eta hauekin batera dihardutenekin, eta langileekin (sindikatuak).



TOLOSALDEKO EUSKARAREN MAHAIA

Lan ildo honetan urrats esanguratsuak eman dira aurreko hiru urtetan. Mahai gainean daude eragile desberdinen artean ondutako TEM izaera, egituraketa eta funtzionamedua proiektua eta TEM 2020-2022 Ekintza Plana. Proposamena zehatza da eta agerian daude adostasunak (beharra, filosofia, helburuak, ekintza plana) eta desadostasunak (egitura, izaera juridikoa).

2020an, proiektua egikaritzen hasteko proposamena landu zen 2021era begira: batetik, ekintza planeko sei lan-ildo bereizi dira modelo praktikan jartzeko eta, bestetik, eskualdeko Udalak, UEMA eta Euskara Elkarleen arteko bi urterako akordio proposamena. Bigarren honetan, hauexek dira egiteko nagusiak; alde batetik, aipatutako 6 lan-ildoen garapena eta egituratzea eta bestetik, antolamendu juridiko egokia adostea. Galtzaundiren ardura litzateke koordinazioa. Finantzaketa: Udalak nagusiki, GFA eta EJ-HPS.

Akordioak ez du behar besteko onarpenik izan eta Galtzaundik ez du izango urte hauetan izan duen ardura. Proiektua eskualdeko eragile instituzional eta politikoek hartu dute. Edukietan ados egonik, beren esku dago forma emateko proposamen berria aurkeztea.



2022-2025 EKINTZA PLANA

Behar-beharrezkoa da aldiari-aldiari burua altxa eta begirada luzatzea. Onura handiak ekarri dizkio Galtzaundi Euskara Taldeari egin duen horrelako ariketa bakoitzak. Aurten agortuko da azkenekoan egin genuena. 2022-2025 laurteko ekintza plana lantzea izango da udazkeneko eginkizun nagusietako bat.

FINANTZAKETA

Eskualdeko Udalak (Tolosa, Ibarra, Anoeta, Irura, Amezketeta eta Amasa-Villabona bereziki), Gipuzkoako Foru Aldundiko laguntza larroak, eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetza dira diru iturri nagusiak. Jarraipena emango zaio Udalekiko harreman eredu egonkor bat eraikitzen 2020an hasitako bideari. Aurrerantzean baina, garrantzi handia hartuko du autofinantzaketarako diru iturriak arakatzea, gairiditu gabeko azterketa dugu oraindik. Horiek eta, orain artean bezala, finantza kudeaketa arduratsua izango dira urteko helburuak.

Partaidetzak:

Euskaraz informatzeko eskubidea bermatzea da helburua. Horretarako, Galtzaundi Euskara Taldeari dagokio euskararen kontsumoa sustatzeko Tolosaldeko Komunikazio Taldea E.M (TKT) -ko Administrazio Kontseiluko lehendakaritza. Garikoitz Goikoetxea da izendatua. Partaidetza aktiboa izango dugu.



GALTZAUNDI EUSKARA TALDEAREN ORGANIGRAMA

Zuzendaritza Batzordea

- Lehendakaria: Kike Amonarriz Gorria.
- Lehendakari-ordea: Mikel Artola Izagirre.
- Idazkaria: Amaia Goikoetxea Azpeitia.
- Diruzaina: Maite Asensio Iparragirre.
- Alegialdea: Jone Garmendia Castaños.
- Anoetaldea-Aiztondo: Uxo Elustondo Arzallus.
- Ibarraldea: Jone Arrospide Alonso.
- Tolosa: Ane Izagirre Arruebarrena.
- Jakintza ard: Haritz Azurmendi Arrue.
- Sustapena ard: Nagore Arin Asuabarrena.
- Tolosaldeko Komunikazio Taldeko ord: Garikoitz Goikoetxea Etxeberria.

Azpieskualdeetako eta alorretako lan taldeak:


- Alegialdea: 9 euskaltzale.
- Anoetaldea-Aiztondo: 8 euskaltzale.
- Tolosa: 10 euskaltzale.
- Ibarraldea: 7 euskaltzale.
- Jakintza: 6 euskaltzale.
- Aktibazioa: 6 euskaltzale.
- Sustapena: 6 euskaltzale.


Lan Talde profesionala: Imanol Artola, Amaia Doyague, Idoia Lahidalga Igor Agirre eta Amaia Semperena.

Euskararen Historia Soziala Tolosaldean: Haritz Azurmendi.

Galtzaundikide ehuna: 463 euskaltzale, horrela banatuta:

- %54 emakumezkoak eta %46 gizonezkoak.
- 24 urtetik beherako kideak: %7.
- 25 urtetik 40ra bitarte: %25.
- 41 urtetik 65ra bitarte: %44.
- 65 urtetik gorakoak: %24.





2021eko EGITASMOA

